BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2185

652/2013 EBAZPENA, apirilaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko 2. Epaitegiak 2012ko urriaren 22an emandako 202/2012 epaia exekutatzeko dena. Epai hori, 2008ko EPEaren testuinguruan emandakoa, Marta Galdós Iztueta andreari dagokio (Oftalmologiako Mediku Espezialista).

Ikusita geratu da 2012ko urriaren 22ko 202/2012 epaia, Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko 2. Epaitegiak 2008ko EPEaren testuinguruan emandakoa, Marta Galdós Iztuetari dagokiona (Oftalmologiako Mediku Espezialista). Eta hauek ditu

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 4253/2008 Ebazpenaren bidez onartu ziren medikuen kategorian (fakultatibo espezialista medikoen hainbat lanpostu funtzionaletakoak) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze prozesua arautuko zuten oinarri espezifikoak. Aipatu kategoria fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetakoak izango ziren (2009-01-14ko EHAA, 9. zk.). Prozesu horri dagozkion oinarri orokorrak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze prozesuak arautuko zituztenak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez onartu ziren (2008ko abenduaren 3ko EHAA, 232. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 21eko 1452/2009 Ebazpenaren bidez, hautatze-probetarako kalifikazio epaimahaia izendatu zen, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Oftalmologiako Mediku Espezialista kategorian lotura estatutarioa lortzeko, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izanik. (2009ko maiatzaren 22ko EHAA, 96. zk.).

Marta Galdós Iztueta andreak parte hartu zuen Oftalmologiako FEMeko hautaketa prozesuan, 2008ko EPEaren barruan, eta Osakidetza-Esukal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 5eko 2763/2010 Ebazpenaren arabera, 111,0473 puntu lortu zituen; beraz, ez zitzaion destino-esleipenik egokitu. Aipatutako Ebazpenaren bidez, Medikuen kategoriako (Oftalmologiako Mediku Espezialista lanpostu funtzionala) txanda irekiko izangaien eta esleitutako destinoen behin betiko zerrenda argitaratu zen (2010eko abenduaren 14ko EHAA, 238. zk.).

Marta Galdós Iztueta andreak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 5eko 2763/2010 Ebazpenaren aurka, eta, ondoren, administrazioarekiko auzibidean aurkaratu zuen (356/2011 prozedura laburtua).

Prozedura judizialari amaiera eman zion administrazioarekiko auzien Vitoria-Gasteizko 2. Epaitegiko 2012ko urriaren 22ko baiespen partzialeko epaiak.

Bigarrena.– Administrazioarekiko auzien Vitoria-Gasteizko 2. Epaitegiak 202/2012 epaiaren bidez hartutako erabakiak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko FEM Oftalmologoen kategoriaren testuinguruan, berekin dakar aur-

karatutako jardunei atzera eragitea eta Epaitegiaren erabakiaren hirugarren zuzenbide-oinarrian ezartzen dena betetzea.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari dagokio epaia exekutatzea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ematen dizkioten eskumenen arabera.

Bigarrena.– Administrazioarekiko auziez arduratzen diren epaitegi eta auzitegiek beren epaiak betearazteko eskumena dute; prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bertan adierazten den moduan bete behar dituzte, horixe xedatzen baita administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan.

Administrazioarekiko auzien Vitoria-Gasteizko 2. Epaitegiak 202/2012 epaiaren bidez hartutako erabakiak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Oftalmologiako FEM kategoriaren testuinguruan, berekin dakar aurkaratutako jardunei atzera eragitea eta Epaitegiaren erabakiaren hirugarren zuzenbide-oinarrian ezartzen dena betetzea.

Epailearen agindua betetzeko, 2008ko EPEko Oftalmologiako FEM kategoriako Kalifikazio Epaimahaia 2013ko urtarrilaren 22an bildu zen, epaian seinalatutako merituak berriz baloratu zituen eta izangaien ordena berria onartu zuen. Horrek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 5eko 2763/2010 Ebazpenaren II. eranskina aldatzeko beharra dakar. Aipatutako Ebazpenaren bidez, Medikuen kategoriako (Oftalmologiako Mediku Espezialista lanpostu funtzionala) txanda irekian hautatutako izangaien eta esleitutako destinoen behin betiko zerrenda argitaratu zen, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izanik.

Destinoa aukeratu dezaketen izangaien ordenan ez da aldaketarik izan; beraz, ez dago zertan eperik ireki destinoak aukeratzeko.

Hirugarrena.– Prozedura izapidetzean egin diren gainontzeko administrazio-egintzak, hain zuzen ere, orain aldatutakoekin zerikusirik ez dutenak, bere horretan utziko dira, gauzatu ziren moduan (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 66. artikulua).

Horregatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Administrazioarekiko auzien Vitoria-Gasteizko 2. Epaitegiaren 2012ko urriaren 22ko baiespen partzialeko 202/2012 epaia betetzeko agintzea.

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 5eko 2763/2010 Ebazpena aldatzea –ebazpen horren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitaratzen dira, eta txanda libreko destino hutsak esleitzen Oftalmologiako Mediku Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan–, II. eranskinari dagokionez. Eranskin hori honekin batera doa, eta bertan hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda agertzen da, destinoa aukeratu dezaketenak eta destinorik ez dutenak bereizita.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan xedatutakoaren eraginetik at geratzen diren gainerako egintza eta izapideek bere hartan jarrai dezatela agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko eta Marta Galdós Iztueta andreari eta Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko 2. zenbakiko Epaitegiari jakinarazteko agintzea.

Bosgarrena.– Epaia betetzeko izapideetan sor daitezkeen gorabeherak aztertzea eta ebaztea epaitegi horri dagokio, halaxe ezartzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

II. ERANSKINA

IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: OFTALMOLOGIAKO MEDIKU ESPEZIALISTA

DESTINOA AUKERATU DEZAKETEN IZANGAIEN ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak	Esperientzia	Prestakuntza	Euskara	Lehiaketa	Oposizioa	Guztira	Txanda
30566400	Arrazola Berrizbeitia, Maria Teresa	35,1000	17,0345	17,0000	69,1345	86,5000	155,6345	I
30622547	Rodriguez Garcia, Ignacio	35,1000	16,5862	0,0000	51,6862	92,5000	144,1862	I
14547402	Montero Salinas, Antonio	50,0000	17,2903	0,0000	67,2903	74,0000	141,2903	I
72476229	Bidaguren Urbieta, Aritz	5,7000	20,0000	17,0000	42,7000	98,5000	141,2000	I
44144918	Guibelalde Gonzalez, Ane	2,4000	20,0000	17,0000	39,4000	96,0000	135,4000	I
30669455	de la Fuente Sanchez, Teresa	24,3000	13,0690	0,0000	37,3690	95,5000	132,8690	I
78871470	Kortabitarte Telleria, Joseba Andoni	17,4000	4,7321	17,0000	39,1321	88,5000	127,6321	I
18602199	Ozaeta Ortiz de Urbina, Itziar	20,4000	6,3775	0,0000	26,7775	97,0000	123,7775	I
33433692	Iturralde Errea, Diana	9,0000	17,8022	0,0000	26,8022	93,5000	120,3022	I
44972612	Gonzalez de Artaza Prado, Ivan	12,9000	5,4519	8,5000	26,8519	92,5000	119,3519	I
16257136	Gil del Rio Corellano, Emilio	28,2000	15,1724	0,0000	43,3724	74,0000	117,3724	I
16054345	Diaz de Cerio Ramsden, Carmen Lucia	23,1000	19,3050	8,5000	50,9050	64,5000	115,4050	I
30695827	Garrido Fierro, Jesus	9,3000	8,3580	0,0000	17,6580	95,0000	112,6580	I
14684021	Gallego Rodriguez - Espina, Julio	50,0000	18,0000	0,0000	68,0000	68,5000	136,5000	IXI
33433692	Garrido Garay, Ines Maria	50,0000	0,0000	0,0000	50,0000	63,5000	113,5000	IXI

I: Irekia IE: Irekia ezgaitua IXI: Irekia-EASLko 3. Xedapen iragankorra

II. ERANSKINA

IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA

DESTINORIK EZ DUTEN IZANGAIEN ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak	Esperientzia	Prestakuntza	Euskara	Lehiaketa	Oposizioa	Guztira	Txanda
78879157	Galdos Iztueta, Marta	5,7000	19,2723	8,5000	33,4723	79,0000	112,4723	I
78883154	Lopez - Plandolit Antolin, Silvia	5,7000	16,6050	8,5000	30,8050	76,5000	107,3050	I
30678025	Corcostegui Cortina, Juan	11,1000	11,7000	0,0000	22,8000	83,5000	106,3000	I
72471568	Isasa Sarralde, Patricia	12,9000	10,8864	8,5000	32,2864	73,5000	105,7864	I
20173710	Santamaria Carro, Alaitz	2,4000	20,0000	17,0000	39,4000	61,5000	100,9000	I
30659035	Castresana Jauregui, Jose Ignacio	9,3000	14,6843	0,0000	23,9843	73,5000	97,4843	I
30678024	Corcostegui Cortina, Eduardo	14,7000	6,3050	0,0000	21,0050	76,0000	97,0050	I
72581075	Romero Moreno, Ioana	2,4000	8,1650	17,0000	27,5650	68,0000	95,5650	I
78797321	Fernandez Ares, Maria Luisa	5,7000	16,4600	0,0000	22,1600	70,0000	92,1600	I
72781519	Garcia Estarriaga, Maria Teresa	18,0000	14,3095	0,0000	32,3095	55,0000	87,3095	I
06250995	Garcia Gomez, Pio Jesus	3,3000	10,8230	0,0000	14,1230	64,5000	78,6230	I
72718488	Ruiz De Zarate Sanz, Blanca	5,7000	6,1650	0,0000	11,8650	51,5000	63,3650	I

I: Irekia